



**GARRANTZITSUA:** gerta daiteke proposamen hau zuzena ez izatea, datu hauetakoren bat falta delako: etxebizitza edo lokala errentan emateagatik lortutako etekinak edo ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik aplikatu beharreko kenkaria. Proposamena onartu dezakezu, datu horiek sartuta. Hori guztia telefonoz (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik - 15:00etara) edo internet bidez.

**31 - 33 / 000000001038**

**NOMBRE CONTRIBUYENTE 001038**  
CL Calle 111 A | 22 DCH  
20000 Municipio  
GIPUZKOA

Zergadun hori:

Errenta aitortpenaren tramiteak errazteko, Gipuzkoako Foru Ogasunak 200.000 autolikidazio proposamen baino gehiago prestatu ditu, eta haien artean zurea.

Proposamenaren emaitza **ITZULTZEKO** da. Hiru egun balioduneko epean, proposamena onartzen denetik aurrera, dirua sartuko dizugu atzealdean ageri den kontu korrontean.

Proposamenarekin ados bazaude, **2017ko apirilaren 6tik aurrera** onartu dezakezu, dela **902 100 040 telefonora** deituz dela [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta) web helbidea erabiliz. Bi kasuotan, datu hauek eskatuko zaizkizu: NA eta gutun honetako beheko laukian ageri den gakoa.

Proposamenarekin ados ez bazaude:

- \* eta hori gertatzen bada etxebizitzaren edo lokalen errentamenduetan edo kuota sindikalen, dohaintzen edo errentan hartutako ohiko etxebizitzaren kenkarietan aldeak daudelako, proposamena onartu dezakezu kontzeptu horiek bertan aldatu eta gero, telefonoz edo internet bidez.
- \* beste edozein kasutan, ez onartu proposamena, eta aurkeztu aitortpena modalitate hauetako bat erabiliz: mekanizatua, lortu duzun errentaren batek aukera hori eragozten ez badizu, edo internet.

**GARRANTZITSUA:** 2015eko aitortpenean, etekinak sartu zenituen etxebizitzak edo lokalak errentan emateagatik edo kenkaria aplikatu zenuen ohiko etxebizitza alokatzeagatik. 2016ko proposamenean kontzeptu horiek ez ditugu sartu, zenbateko zehatzak ezagutzen ez ditugulako. Horrelako etekinak 2016. urtean ere jaso bazenituen, edo urte horretan kenkari hori aplikatzea badagokizu, proposamena onartu beharko duzu falta diren kontzeptuak bertan sartu eta gero. Hori guztia telefonoz (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik - 15:00etara) edo internet bidez.

Adeitasunez,

Jabier Larrañaga Garmendia  
Ogasuneko eta finantzetako diputatua

Proposamenari adostasuna emateko **(2017ko apirilaren 6tik ekainaren 26ra bitartean)**

\* Telefonoz (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik - 20:00etara): **902 100 040**

\* Internet bidez [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta)

Proposamena onartzeko eskatuko diren datuak:

\* Kodea: **024863**

\* NA



**AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Ogasun eta Finantza Departamentua



**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Departamento de Hacienda y Finanzas

**109**  
**2016**

Zergaduna: **NOMBRE CONTRIBUYENTE 001038** 2016 baino lehen erretiratua  
 Tributazio mota: **BATERA** Ezkontza erregimena: **Irabazpidezkoa**  
 Helbidea: **CL Calle 111 A 01 I Municipio**  
 Kontrola eta Artxiboa: **2017-109-9900194590**

Kenkarirako eskubidea ematen duten ondorengo ahaideak:

Ezkontidea / Izatezko bikotea: <b>NOMBRE CONYUGE</b>		2016 baino lehen erretiratua	
01 Lanaren etekinak	<b>5.933,76</b>	39 3/2014 Fako 20. x.g.ko KUOTA OSOA	
02 Kapital higiezinaren etekinak	<b>7.842,00</b>	40 Atxikitako elementuen irabazien doikuntza	
03 Kapital higigarriaren etekinak		41 (37 + 38 + 39 - 40) <b>KUOTA OSOA, GUZTIRA</b>	<b>134,51</b>
04 Jarduera ekonomikoaren etekinak		42 Ondorengo ahaideak	
05 Errenten egozpena		43 Seme-alaben urteko mantenua	
06 Ondare irabaziak (eskualdaketak ez)		44 Aurreko ahaideak	
<b>07 (01etik 06rako batura) Osagai positiboak, guztira</b>	<b>13.775,76</b>	45 Desgaituak	
08 Gizarte Segurantza, funtzionarioen mutualitateak...		46 Mendeko pertsonak	
09 Kargu politikoaren ekarpenak	<b>3.000,00</b>	47 65 urtetik gorako adina	<b>668,00</b>
10 Lanaren hobaria		48 Desgaituen ondareari egindako ekarpenak	
11 Errentan emandako higiezinaren gastuak		49 Ohiko etxebizitza errentan hartzea	
12 Kapital higigarriaren etekin negatiboak		50 Ohiko etxebizitza erostea	
13 Kapital higigarriaren gastuak		51 Jardueretan inbertitzea	
14 Jarduera ekonomikoaren etekin negatibo integragarria		52 Enpresa berrietan inbertitzea	
15 Jarduera ekonomikoaren etekin negatiboaren konpentsazioa		53 Langileek enpresan parte hartzea	
16 Ondarearen zenbateko negat. kopents. %10eko mugarekin		54 Estatuko sozietate zibilak	
<b>17 (08tik 16rako batura) Osagai negatiboak, guztira</b>	<b>3.000,00</b>	55 Enpresako aurrezki-kontuan inbertitzea	
18 Au.ko ekit.ko ZOOetako ondare galeren konpentsazioa		56 Dohaintzak (%20)	<b>144,00</b>
<b>19 (07 - 17 - 18) ZERGA OINARRI OROKORRA</b>	<b>10.775,76</b>	57 Lehenetsuneko jarduerak	<b>12,00</b>
20 Murrizpena batera tributatzeari	<b>4.218,00</b>	58 Nazioarteko zergapetze bikoitza	
21 Murrizpena pentsio konpentsagarriak ordaintzeagatik		59 Sindikatuak eta alderdi politikoak	
22 Murrizpena BGAEei, etab. ekarpenak egiteagatik		60 Beste kenkari batzuk	
23 Au.ko. ekit.etako OLO negatiboaren konpentsazioa		<b>62 (42tik 60rako batura) Kenkariak, guztira</b>	<b>824,00</b>
24 Justifikatu gabeko ondare irabaziak		<b>63 (41 - 62) KUOTA LIKIDOA</b>	
<b>25 (19 - 20 - 21 - 22 - 23 + 24) OINARRI LIKIDAGAR.OROKORRA</b>	<b>6.557,76</b>	64 Lana	
26 Kapital higiezinaren etekinak		65 Kapital higiezina	<b>1.490,00</b>
27 Kapital higiezinaren gastuak	<b>76,13</b>	66 Kapital higigarria	<b>136,85</b>
28 Kapital higigarriaren etekin garbia		67 Jarduera ekonomikoak	
29 Au.ko ekit.etako kapital etekin negatiboaren konpen.		68 Inbertsio funtsak	
30 Ondare irabaziak (eskualdaketak)		69 Sariak	
31 Au.ko ekit.etako ondare galeren konpentsazioa		70 IETak eta ABEEak	
32 Pents. konpentsagarriengatik murriztutakoaren soberakina		<b>71 (64tik 70erako batura) Konturako ordainketak</b>	<b>1.626,85</b>
<b>33 (26 - 27 + 28 - 29 + 30 - 31 - 32) AURREZ. OINARRI LIKIDAG.</b>	<b>76,13</b>	72 Doiketa positiboak	
<b>34 (25 + 33) OINARRI LIKIDAGARRIA</b>	<b>6.633,89</b>	73 (63 - 71 + 72) Diferentzia	<b>1.626,85-</b>
35 raino		74 Aurreko likidazioen emaitza	
Gainerako + 6.557,76 % 23,00 (e)an 1.508,28		<b>75 (73 - 74) ITZULTZEA</b>	<b>1.626,85</b>
Oinarria (25) 6.557,76 Aurretiko kuota osoa, orokorra	<b>1.508,28</b>	<b>ORDAINTZEA</b>	
36 Kuotaren gutxipena	<b>1.389,00</b>		
<b>37 (35 - 36) KUOTA OSOA, OROKORRA</b>	<b>119,28</b>		
38 raino			
Gainerako + 76,13 % 20,00 (e)an 15,23			
Oinarria (33) 76,13 <b>K. OSOA, AURREZPENARENA</b>	<b>15,23</b>		
Aurtengo aitortpenean sartzen ez diren errenta negatiboak hurrengo ekitaldietan konpentsatuko dira indarrean dagoen araudiaren arabera.		<b>Itzulketaren zenbatekoa kontu zenbaki honetan ordainduko da</b> <b>ES11-2222-3333-4444-5555-6666</b> <b>entitatea: BANCO</b>	

Proposamenari adostasuna emateko **(2017ko apirilaren 6tik ekainaren 26ra bitartean)**

\* Telefonoz (asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik - 20:00etara): **902 100 040**

\* Internet bidez **www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta**

Proposamena onartzeko eskatuko diren datuak:

\* Kodea: **024863**

\* NA

## PROPOSAMENAREN XEHETASUNA

Zergaduna: NOMBRE CONTRIBUYENTE 001038			Kontrol eta artxiboa: 9900194590 001038	
Kontzeptua	Jasotzailea	Ordaintzailearen identifikazioa	Zenbatekoa	Atxikipenak
Lana	Aitortzailea	PAGADOR	5.933,76	0,00
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	120,40	22,88
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	35,62	6,77
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	32,48	6,17
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	32,48	6,17
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	32,38	6,15
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	32,38	6,15
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	31,84	6,05
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	17,88	3,40
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	17,88	3,40
Dibidenduak	Aitortzailea	PAGADOR	17,52	3,33
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	120,40	22,87
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	35,61	6,76
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	32,37	6,15
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	32,37	6,15
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	17,88	3,39
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	17,88	3,39
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	17,52	3,33
Kontuen interesak	Aitortzailea	PAGADOR	38,10	7,27
Kontuen interesak	Ezkontidea	PAGADOR	38,03	7,20
Dohaintza (20%)	Aitortzailea	PAGADOR	360,00	0,00
Dohaintza (20%)	Aitortzailea	PAGADOR	70,00	0,00
Dohaintza (20%)	Ezkontidea	PAGADOR	100,00	0,00
Dohaintza (20%)	Ezkontidea	PAGADOR	100,00	0,00
Dohaintza (20%)	Ezkontidea	PAGADOR	90,00	0,00
Beste Dohaintza	Aitortzailea	PAGADOR	40,00	0,00
Lokalaren alokairua	Ezkontidea	PAGADOR	7.842,00	1.490,00

## LOKALEN ERRENTAMENDUA

Proposamen hau osatu gabe dago, 1. orriko GARRANTZITSUA apartatuan adierazten den bezala. Lokalen errentamenduei dagokienez, jarraian zehazten diren sarrerak eta atxikipenak sartu dira proposamenean, baina gastuak konputatzea falta da. Proposamena onartzean, gehitu gastu horiek, halakorik baduzu.

Jasotzailea	Ordaintzailearen identifikazioa	Zenbatekoa	Atxikipenak
Ezkontidea	PAGADOR	7.842,00	1.490,00

## EGIN GABEKO KONPENTSAZIO ETA KENKARIAK

Zenbateko batzuk aplikatu gabe utzi daitezke ekitaldi baten aitortzean, hurrengo ekitaldietako aitortzean aplikatzeko, hala nahi bada. Horiek izan daitezke egin gabeko konpentsazio eta kenkariak -ondare galerak, esate baterako-, zerga oinarriaren murriztapenak -BGEAak kasu-, aurrezpenaren etekin negatiboak, oinarri likidagarri negatiboak, edo jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak. Taula honetan zehazten da aurreko ekitaldietan aplikatu gabe geratu direnetatik zer zenbateko aplikatu diren aitortzearen ekitaldian eta zeintzuk geratzen diren geroko ekitaldietan aplikatzeko. Era berean, aitortzearen ekitaldian sortu eta geroko ekitaldietan aplikatzeko uzten diren zenbatekoak ere jasotzen dira.

Jasotzailea	Ekitaldia	Kontzeptua	Aur.Ekitaldi apli.	Ekit.honetan apli.	Hurrengo ek.apli.
Ezkontidea	2012	Ondare galerak - AOE	1.348,56		Epe bukaera



## TRIBUTAZIO MOTARIK ONURAGARRIENA

Zure familia unitateak bi modutara tributa dezake:

- \* Batera: aitopen bakar batean kide guztien errentak biltzen dira.
- \* Banaka: familia unitateko kide bakoitzak bere aitopena aurkezten du.

Bi aukeren emaitza kalkulatu ondoren, zure familia unitatearentzat hobeto ateratzen den autolikidazio proposamena azaltzen dizugu: **batera** aitortzea.

Emaitzak:

- \* Batera aitortua : 1.626,85 euro itzultzea
- \* Banaka aitortua: 1.596,57 euro itzultzea, datu hauen arabera:
  - \* NOMBRE CONTRIBUYENTE 001038 ren aitorpenean 68,42 euro itzultzea
  - \* NOMBRE CONYUGE ren aitorpenean 1.528,15 euro itzultzea

Hortaz, bidali dizugun proposamenarekin ados bazaude, hura onartuta zuretzat onuragarriena den tributazio mota ere onartuko duzu, hau da, batera aitortzea.

# AZALPENA

## 1 - Kontu Korrontea

Egiaztatu 1. orriaren atzealdeko lauki ilunduan ageri den kontu korrontea zurea dela eta erabilgarri dagoela. Hala ez bada, bi baldintza horiek betetzen dituen beste kontu baten IBAN kodea eman beharko diguzu.

## 2 - Proposamenaren emaitza aldatzea

Proposamena onartzeko unean kontzeptu hauek **aldatu daitezke: etxebizitza errentan emateagatik lortutako** etekinak eta **kuota sindikalengatik, dohaintzengatik eta ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik** aplikatzen diren kenkariak.

## 3 - Tributazio mota

Familia unitatea osatzen bada, autolikidazio proposamena egiten da zergadunari **onuragarriago zaion tributazio mota aplikatuta (banakakoa edo baterakoa)**. Gainera, 2. orrian, beste tributazio motak duen emaitza adierazten da.

## 4 - Lanaren etekinak

Jasotzen den ordainketa bakoitzeko, etekin osoa eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak hartzen dira.

Azkenik, lanaren hobaria lortzen da, baina hau aldatu egin daiteke sarreraren eta gastuen arteko diferentzia zenbatekoa den.

Diferentzia (sarrerak - gastuak)	Hobaria
< 7.500	4.650
7.500 - 15.000	4.650 - 0,22 x (Diferentzia - 7.500)
> 15.000	3.000

Lanetik ez datozen errentak konputatzen badira, eta horiek 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da. Langile aktibo desgaituen kasuan, hobaria gehitu egiten da desgaitasun mailaren arabera:

Desgaitasun maila	Hobariaren gehikuntza
%33 - %64	%100
%33 - %64 eta mugikortasun murriztua	%250
> %65	%250

Hobaria aplikatzearen ondorioz ateratzen den lan etekin garbia ezin da negatiboa izan.

## 5 - Kapital higiezinaren etekinak (lokalak)

Errentan emandako lokal bakoitzeko, errentamenduaren zenbatekoa, OHZ, amortizazioa eta interesak sartzen dira.

## 6 - Oinarri ezargarri orokorra (OEO)

Aurreko 4. eta 5. apartatuetako etekinen batura da.

## 7 - Oinarri likidagarri orokorra (OLO)

**OLO**a lortzeko, murrizpen hauek aplikatzen zaizkio **OEO**ari:

-BGAEei egindako ekarpenak. Enpresariak ekarpenak egin baditu, oinarria murrizteaz gainera, lan etekintzat hartzen dira. Murrizpenak hiru muga ditu: 5.000 euro zergadunaren ekarpenetarako, 8.000 euro enpresariaren kontribuzioetarako eta 12.000 euro zergadunaren ekarpenak eta enpresariaren kontribuzioak batuta.

-Batera aitortzen denean, oinarri ezargarria 4.218 euro murrizten da (3.665 euro, guraso bakarreko familia unitateen kasuan).

## 8 - Aurretiko kuota orokor osoa

**OLO**ari ondoko taula aplikatuz lortzen da:

Oinarria (muga eurotan)	Kuota osoa	Oin.aren gainerakoa (muga eurotan)	Tasa aplik.
0,00	0,00	15.550,00	%23
15.550,00	3.576,50	15.550,00	%28
31.100,00	7.930,50	15.550,00	%35
46.650,00	13.373,00	19.990,00	%40
64.640,00	21.369,00	25.670,00	%45
92.310,00	32.920,50	30.760,00	%46
123.070,00	47.070,10	56.390,00	%47
179.460,00	73.573,40	Hortik aurrera	%49

## 9 - Kuotaren txikitzea

1.389 euroko txikitzea, aitorten bakoitzeko.

## 10 - Kuota orokor osoa

8. apartatuko kuotatik 9. apartatuko kuotaren txikitzea kenduz lortzen da.

## 11 - Kapital higigarriaren etekinak

Besteak beste, sartzen dira: dibidenduak, kooperatiben itzulkinak eta kooperatiben aldeko ekarpenen interesak, kontuen interesak, bonoenak, bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak, eta aktibo finantzarioak eskualdatzeagatik lortutakoak.

Dibidenduak 1.500 euroko mugaraino daude salbuetsita urtean aitorten bakoitzeko. Kooperatibek ekarpenak direla-eta bazkideei ordaindutako interesei ez zaie aplikatzen salbuespen hori.

## 12 - Kapital higiezinaren etekinak (etxebizitzak)

BIZIGUNE edo ALOKABIDE programen bidez errentan emandako etxebizitza bakoitzeko, jasotako zenbatekoa sarrera gisa jartzen da, eta sarreraren %20ko hobaria gastu gisa.

## 13 - Ondare irabaziak

Inbertsio fondoetako partaidetzak eskualdatzeagatik lortutakoak.

## 14 - Aurrezpenaren oinarri ezargarria (AOE)

11., 12. eta 13. apartatuetako errentak batuz lortzen da.

## 15 - Aurrezpenaren kuota osoa

**AOE**ari taula hau aplikatuz lortzen da:

Oinarria (muga eurotan)	Kuota Osoa	Oin.aren gainerakoa (muga eurotan)	Tasa aplik.
0,00	0,00	2.500,00	%20
2.500,00	500,00	7.500,00	%21
10.000,00	2.075,00	5.000,00	%22
15.000,00	3.175,00	15.000,00	%23
30.000,00	6.625,00	Hortik aurrera	%25

## 16 - 3/2014 FAKO 20.x.g.ko hautazko araubidearen kuota osoa

Negoiazterara onartutako baloreen eskualdaketa zenbatekoen baturari %3 aplikatuz lortzen da.

## 17 - Oinarri ezargarri osoa (OEOS)

**OEO**a eta **AOE**a batuz lortzen da.

## 18 - Kenkaria ondorengo ahaideengatik

Lehenengoa.....	585
Bigarrena.....	724
Hirugarrena.....	1.223
Laugarrena.....	1.445
Bosgarrena eta hurrengoak.....	1.888 bakoitzagaik
Gehikuntza 6 urtetik beherakoa izateagatik.....	335

## 19 - Kenkaria aurreko ahaideengatik

Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik 279 euroko kenkaria.

## 20 - Kenkaria adinagatik

Kenkari hau aldatzen da adinaren, oinarri ezargarri osoaren (**OEOS**) eta tributazio motaren arabera.

**Banakako** tributazioan hau da zenbatekoa:

Adina	OEOS < 20.000	OEOS 20.000-30.000 artekoa	> 30.000
> 65	334 Euro	334 - 0,0334 x (OEOS-20.000)	0 Euro
> 75	612 Euro	612 - 0,0612 x (OEOS-20.000)	0 Euro

**Baterako** tributazioan hau da zenbatekoa:

Adina	OEOS < 35.000	OEOS > 35.000
> 65	334 Euro	0 Euro
> 75	612 Euro	0 Euro

## 21 - Kenkaria desgaitua izateagatik

Desgaitasun maila	Kenkaria
%33 - %64	867
> %65	1.224
> %75 eta 15-39 puntu bitartean hirugarren pertsonen laguntzagatik	1.428
> %75 eta > 40 puntu bitartean hirugarren pertsonen laguntzagatik	2.040

## 22 - Kenkaria mendetasunagatik (bateraezina da desgaitasunaren kenkariarekin)

Mendetasun maila	Kenkaria
Mendetasun txikia.....	1.224
Mendetasun ertaina.....	1.428
Mendetasun handia.....	2.040

## 23 - Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik

%18ko kenkaria, 1.530 euroko mugarekin **etxebizitza kontuetan** sartutako diru kopuruengatik eta **birgaitze lanen** zenbatekoarengatik (BEZa barne).

## 2012/01/01a baino lehen EROSITAKO ETXEA

%18ko kenkaria, 2.160 euroko mugarekin aitorten bakoitzeko (%23 eta 2.760 euroko muga, aitorten bakoitzeko, 35 urtetik beherakoentzat eta familia ugariarentzat) **inbertsiorako maileguen** interesengatik eta amortizatutako kopuruengatik.

## 2012/01/01etik aurrera EROSITAKO ETXEA

%18ko kenkaria, 1.530 euroko mugarekin (%23 eta 1.955 euroko muga, 30 urtetik beherakoentzat eta familia ugariarentzat) **inbertsiorako maileguen** interesengatik eta amortizatutako kopuruengatik.

## 24 - Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

%20ko kenkaria, 1.600 euroko mugarekin urtean, BIZIGUNE edo ALOKABIDE programen bidez ordaindutako alokairuaren gainean (30 urtetik beherakoentzat eta familia ugariarentzat, kenkaria %25ekoa da, 2.000 euroko mugarekin urtean).

## 25 - Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik

%20ko kenkaria.

## 26 - Kenkaria dohaintzengatik

%20ko kenkaria.

## 27 - Lehetasunezko jardueren kenkaria

%30eko kenkaria.

## 28 - Kuota diferentziala

Kuota osotik kenkariak eta atxikipenak kenduz kalkulatu da zer zenbateko helbideratuko dugun zure kontuan proposamenarekin ados egonez gero (emaitza itzultzea bada, ordaindu egiten da; aldiz, emaitza ordaintzekoa bada, zenbatekoa kargatuko zaizu). Autolikidazioen emaitza itzultzekoa bada, itzulketa ez da izango sartutako atxikipenaren zenbatekoa baino handiago.

